

EUSKAL ESKOLA PUBLIKO BERRIAREN ALDEKO JAIA

BERTAN BEHERA

Sortzen Euskal Eskola Publiko Berriaren alde lanean diharduen elkarte da. Zeregin horren baitan, helburu dugun eskola aldarrikatzeko jai nazionala antolatu dugu hemezortzi urtez. Mobilizazio xume gisa jaio zen ekimen honek azken urteotan milaka eta milaka euskaltzale bildu ditu Iruñeko bihotz den Takoneran, udaberri garaian dimentsio handia hartuz. Urtaro nahasi honetan ordea, eguraldia ez dugu beti lagun izan. Erreñik Trinitariosen eguzkitarako krema behar izan zuen bitartean Hazitxo Takonerako zaparradan ia ito zitzaigun. Iazko eurite hari aurre egiteko egin behar izan genuen esfortzuak gainera, gure elkarte kinka larrian utzi zuen.

Egoera hartan, aurtengo jaia antolatzen hasi ginen Txantreako Bernat Etxepare eskolaren laguntzaz eta hartu behar izan genuen lehenengo erabakia jaiaren formatuaren ingurukoa izan zen. Jaia egun bakar batean ospatetik asteburu osora zabaldu genuen, alde batetik antolatzaileen espazioan eragiteko, eta bestetik eguraldi txarragatik igandean bertan behera utzi beharko genituzkeen ekimenak larunbatean leku itxi batean ziurtatzeko asmoz. Izan ere, iazko esperientziaren ostean jaia antolatzeko aurrekontua jaitsi behar izan genuen eta karpa eta estalkirik gabeko planteamendua osatu.

Eguraldi aurreikuspenek ostiraletik aurrera euri zaparradak izango ditugula diote. Gure planteamendua karparik gabekoa dela kontutan hartuta, igandeko jaia bertan behera uzteko erabakia hartu dugu; euriak eguna bera kolokan jartzeaz gain, muntaketa lanak oztopatuko dizkigulako (soinu ekipoak, elektrizitatea eta abarrak ezin ditugu euripean muntatu). Aurretik esan dugun bezala, gure elkarte ekonomikoki itota dagoenez ez dugu aurrekontu eta inbertsio handiei aurre egiteko dirurik, eta beraz, ez dugu Takonera bezalako espazio zabala egun euritsu baterako egokitzeko aukerarik.

Bestetik, lanean eman ditugun hilabete luzeen ostean, hainbat traba izan ditugu larunbatean Txantrean burutu nahi genituen kontzertuak aurrera eramateko. Azken momentuan araudi berriak ezarritako baldintzak oso zorrotzak izan dira. Ebakuazio plana eskatzen zuten bezala betetzeko, arkitekto baten proiektua eta diru inbertsio handia eskatzen zuen. Horri aurre egitea ezinezkoa da gurea bezalako elkarte txiki batentzat. Horregatik, eta gure nahiaren kontra, Txantxu Rock musika jaialdia bertan behera utzi behar izan dugu.

Bihotzak aurrera egitera bultzatzen bagaitu ere, buruak ezin dugula esaten digu argi eta garbi.

Ezin dugu amaitu idatzi hau urtebete honetan auzolan erraldoi honetan parte hartu duten kide, norbanako, instituzio, eragile eta kultur talde guztiei **ESKERRAK BIHOTZ BIHOTZEZ** eman gabe. Lan hori guztia ez da ezerezean geratuko, ikusten ez den onura asko lortu dugu eta.

Iruñean 2013ko maiatzaren 15ean

MILAESKER GUZTIAGATIK!

Sortzen elkarte.